

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 29koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programan jasotako laguntzen balorazio-batzordeko kideak.

Abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzen dira. Bada, dekretu horren 10. artikuluko 2. lerrokan, hau ezartzen da: «Aurkeztutako eskaeren balorazioa egiteko Balorazio Batzordea osatuko da. Hauek osatuko dute batzorde hori: elikagaien industriaren arloko Zuzendaritza eskudunaren titularrak edo bere ordezkioak, Batzordeko zuzendaria izango dena, eta elikagaien industriaren arloko Sailburuordetza eskudunaren zuzendaritzetako langile teknikoen artean aukeraturako bi pertsonak, hitza eta botoa duten batzordekideak izango direnak. Horiek ebazpen bidez izendatuko ditu elikagaien industriaren arloko Sailburuordetza eskudunaren titularrak; ebazpen horretan izendatuko da batzordeko idazkaria.»

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretua ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Honako hauek izendatzea balorazio-batzordeko kide. Batzorde horrek laguntza-eskabideak aztertu eta ebaluatuko ditu, eta dagokion ebazpen-proposamena egingo. Laguntza horien deialdia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturako sailburuaren 2019ko uztailaren 23ko Aginduaren bidez egin zen, zeinak 2020ko deialdia egin baitzuen mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea bultzatzeko programan inbertsioetarako laguntzak emateko.

Batzordeburua:

– Peli Manterola Arteta jauna, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria.

Batzordekideak:

– Mario Michel Rodriguez jauna, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna.

– Miguel Angel Osua Perdigón andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako laguntza-arloko teknikaria, idazkari jardungo duena.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 29a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.